



Zuzendari estimatu hori:

Eskutitz honen bidez, azken ikasturteotan bezalaxe “Bertsolaritza Irakaskuntzan” programaren beste edizio baten berri ematera gatozkizu Euskara Ataletik.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Bertsozale Elkartearekin lankidetzan estuan, bai eta tokian tokiko udalen laguntzarekin ere, programa hezigarri hau eskaini nahi die Nafarroako D ereduko ikastetxeetako ikasleei.

Urtero bezala Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak dira hartzaileak oro har, eta Bertsogintzaren transmisioa eta ahozkotasunaren lanketa ditu helburu ikastaroak. Bertsoa euskaraz pentsatu eta egin behar den jarduera izanik, ikasleen hizkuntza gaitasunean eta ahozko komunikazioan eragiten da, beti ere giro ludikoan. Programak, beraz, euskararekiko jarrera positiboa indartzeaz gain, euskararen erabilera bultzatzen du.

Saioak Nafarroako Bertsozale Elkarteko irakasle espezialistek gidatzen dituzte eta astean behin eman ohi dira. Elkarteko irakasleek 2024ko maiatzean/ekainean lotuko dute egutegia ikastetxeko zuzendaritza kideekin.

2024-2025 ikasturtean programan parte hartzeko, nahitaezkoa izango da honako galdetegi hau betetzea: <https://forms.gle/DbLWfpjNa1XoMskFA>

Izen-emateko epea apirilaren 22tik maiatzaren 3ra egonen da zabalik.

Izen-emateko prozeduraren eta esleipenaren inguruko zalantzak argitzeko: 848 42 63 99 telefono zenbakira deituta edo mgorospl@navarra.es postontzira idatzita.

Ikastaroaren inguruko zalantzak argitzeko: 948 14 37 47 eta 691 26 18 96 telefono zenbakietara deituta edo [nafarroa@bertsozale.eus](mailto:nafarroa@bertsozale.eus) postontzira idatzita (Nafarroako Bertsozale Elkarteak).

Jaso ezazu agur bero bat,

Eneritz González Fernández

Euskara Ataleko burua